

Iñaki Odriozola

IRAKASLEA

Ad ignorantiam falazia

Demostra ezazu Jainkorik ez dagoela! Hau izan da erlijiozaleek erabili duten argumentua, jainkoaren izatearen alde egiteko. –Zuk ezin duzun demostratu jainkorik ez dela, orduan, nik diot badela–. Boterearekin bat zeudenez, gainera, hizkuntza ere pentsamolde horren menpe jarri zuten, *a-teo* deituz –jainkorik-gabea– aurka zeudenei, eurek, *cum-teo* zirela onartu beharrean. Erabat lasai geratzen ziren hori adierazi eta gero (ateoak ez, ordea, erre egiten baitzituzten), egiaren jabe zirelakoan.

Argumentu iruzurti honi “ad ignorantiam” falazia deritzo, eta batxilergoko ikasleek erraz atzematen duten kontzeptua da, erraza baita agerian uztea, edozer baieztatu daitekeela, edozeren izatea onartu, aurkako ezin ezeztatu daitekeela argudiatuz.

Eta erantzuna argia da, nik ez daukat jainkorik –edo beste ezer– ez dagoela demostratu beharrik; aitzitik, zuk demostratu behar duzu badagoela, baina horretarako ezin duzu aurkakoaren demostraezintasuna erabili.

Egoera praktikoetara jaitsiaz, argumentu honen erabilerak juridikoki badu konkretzioa, errugabetasun-presuntzio edo, deritzona. Honen muina zera da, inork ez daukala demostratu beharrik leporatzen zaiona ez duela egin, eta, oster, akusatzaileak, demostratu behar duela norbaiti egozten diona.



DANI BLANCO



Nik ez daukat
jainkorik ez dagoela
demostratu beharrik;
aitzitik, zuk
demostratu behar duzu
badagoela, baina
horretarako ezin duzu
aurkakoaren
demostraezintasuna
erabili



Joan zen astean, Bateragune kasuaren epaiketan, Estatua babesten duen fiskalak, Arnaldo eta besteek ETArek menpe zeudela baieztatzeke, haxe zioen, hain zuzen ere –gaztelaraz, noski–: “Ez dagoela dokumenturik, ez daturik, hauek antolatutako operazio politikoan ETA ez dagoela adierazten duenik”. Eta erabat lasai geratu zen hori adierazi eta gero (besteak ez, ordea, kartzelan baitaude), egiaren jabe delakoan.

Fiskal honek batxilergoa egin duela ziurta daitekeenez, era trakets honetan jokatzeko bi arrazoi daudela otutzen zait: edo ezin izan du demostratu egotzitakoa (eta hau agerian geratu da abokatuei esker), eta horregatik, ezgaitasunez, jo du falazia erabiltzera, edo, txarragoa dena, ez du ikusi egotzitakoa demostratu beharrik, eta falazia erabili du, diskurtso zentzugabe eta hutsal bat betetzeko, azkenean, aurrez idatzitako helburua, kartzela eskaera, babesteko.

Batak ala besteak adierazten dute fiskal honen jokaeraren maltzurkeria larria. Hau prebarikazioa ez bada, zer da, orduan? (“Justiziarekin erlazioa duten langileek, maleziaz beren karguak dituen eskakizunei uko egitean edo hauek behar bezala ez betetzean datza delitua” dio Harluxet-ek).

Ea, bada, guztiak aske uzten dituzten, ordua da eta. ■

TXANDAN

Joxerra Garzia



Dominique Strauss-Kahn da bere grazia. 2007tik oraintsu arte Nazioarteko Diru Funtsaren zuzendari izan denez, aspaldiko lagun ditu dirua eta boterea. Alderdi sozialistako kide, neoliberalismorik basatiena aplikatu zuen, horrek krisi globala eragin zuen arte. Karguan jarraitu zuen, hala ere, eta neoliberalismoak eragindako gaitza neoliberalismo gehiagorik sendatu behar dela agindu.

Gainbehera edo, maiatzaren 14an hasi zen, poliziak atxilotu zuenean, New Yorken, hoteleko langile bati sexu erasoa egin izana leporatuta. Ez

Koherentzia

da giltzapean luzaroan egon: berehala aurkitu dituzte zantzuak, salatzailea fidagarria ez dela frogatzen omen dutenak. Hedabideek gustura egin dute hortik aurrerakoa, omen behar lukeen lekuan *amen* jarritz.

Jakina: salatzailea besteak beste emakume, beltz, etorkin eta pobre izateak ez du horrekin zerikusirik.

Hori bai, maila publikoaren eta pribatuaren arteko koherentzia ezin zaio DSKri ukatu, batean bezala bestean ere ahulenak izorratzea baita bere jardunaren funtsa.

Ederra curriculum, Frantziako sozialismoa biziberritzeko! ■